

GURE GAITASUNAK INDARTZEKO LEHENTASUN ESTRATEGIKOAK

Ziurgabetasun garaiak bizi ditugu eta testuinguru global berriari aurre egiteko oinarri sendoak ezarri behar direla dioen diagnostikoa orokortua dago. Epe laburreko politikak eta erreakzio hutsak biziraupena baino ez dute bermatzen, eta ziur gaude herri honek etorkizun oparoa eraikitzeke gaitasuna duela.

Hori lortzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu irismen luzeko ikuspegi bat izatea eta gure gaitasunak aktibatzea, herri hau une historikoaren mailan jarriko duten egiturazko eraldaketei ekiteko. Indarguneak dituen herria, suertatu daitezkeen erronkei aurre egiteko gai dena, jendeari ongizatea eta segurtasuna bermatzearekin batera.

EH Bilduk bost lehentasun estrategiko aurkezten ditu gaitasun horiek indartzeko helburuarekin, kooperazioa eta anbizio eraldatzailea lehenesten dituen gobernantza-eredu baten bidez une historikoarekin erantzunkide izateko borondatearekin batera.

- I. Industriaren Defentsarako Taldea Politika Industrialaren Diseinurako Herri Kontseilua bihurtzea
- II. Aliantza Finantzariotik Funtz Subiranoa sortzea
- III. Prospektiba eta etorkizuneko analisia egiteko organoa sortzea
- IV. Burujabetza energetikoaren aldeko herri-ituna
- V. Etxebizitza eskubidea bermatzeko inbertsio funtsa

ehbildu

I. INDUSTRIAREN DEFENTSARAKO TALDEA POLITIKA INDUSTRIALAREN DISEINURAKO HERRI KONTSEILUA BIHURTZEA

XXI. mendeko erronkei aurre egin ahal izateko beharrezkoa da politika industrialaren diseinatzerakoan ikuspegi integratu eta parte-hartzailea izatea. Horregatik, gure ustez, funtsezkoa da sektoreko eragile guztien parte-hartzea bermatuko duen organo bat eratzea.

Honenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu Politika Industrialaren Diseinurako Herri Kontseiluaren sortzea. Kontseilu honek organo aholku-emaile eta eztabaidagune iraunkor gisa jardungo du, eta bertan hainbat eragile bilduko dira industria-politikaren diseinuan parte hartzeko.

Helburua

Kontseiluaren helburua izango da euskal politika industrialaren modu parte-hartzailean diseinatzea, epe luzerako estrategia bat garatzea eta industriaren etorkizuna bermatzeko proposamen zehatzak egitea.

Osaketa

Honako eragileek osatuko dute kontseilua:

- Eusko Jaurlaritza (Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna eta Ekonomia, Lana eta Enplegua Sailak)
- Enpresa klusterrak
- Enpresa txiki eta ertainen ausazko ordezkariak
- Enpresarien elkarteak
- Sindikatuak
- Mondragon
- ASLE
- Unibertsitateak eta ikerketa zentroak
- Eskualdeetako garapen agentziak

Aditu talde batek, 10 urteko industria garapen estrategikorako plana eta honen berrikuspenak egiteko ardura izango du, honako profilak izango ditu talde honek:

- Industria politiketan eta ekonomian adituak.
- Jasangarritasun eta berrikuntza teknologikoan espezialistak.
- Industria-sektorean esperientzia duten aholkulariak.
- Datuen analisi eta digitalizazioan adituak.

Funtzionamendua

- Urteroko bilera finakoak izango ditu eta, beharrezkoa bada, bilerak deitzeko ahalmena izango du.
- Erabakiak adostasunez hartuko dira eta industria-politikaren garapen estrategikoa gidatuko duten txostenak eta proposamenak egingo ditu.
- Eusko Jaurlaritzari txostenak helarazteko ardurak izango du, betiere industria-politikaren diseinuan kontseiluaren irizpideak aintzat hartuak izan daitezzen.
- Eguneroko funtzionamendua funtzionalagoa izango da, eraginkortasuna bermatzeko lan-batzorde espezifikokoak sortuz eta tresna digitalak erabiliz.

Eragina

Politika industrialari lotutako estrategia publikoetan kontseiluaren iritziak eta proposamenak kontuan hartuko dira, betiere, jasangarritasuna, berrikuntza eta enplegu duina sustatzeko helburuarekin.

II. ALIANTZA FINANTZARIOTIK FUNTS SUBIRANOA SORTZEA

Aurreko hauteskunde-kanpainan hainbat indar politikok, baita gaur egun Jaurlaritza osatzen duten alderdiek ere, proposatu genuen Euskal Funts Soberano bat sortzea. Funts horrek, besteak beste, euskal ekonomiaren inbertsio-gaitasuna indartzeko, egonkortasun ekonomikoa bermatzeko eta subiranotasun ekonomikoa sustatzeko helburua izango luke.

Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko “Euskadiko Finantza Ekosistema” (2022) txostenak argi erakusten du Euskadiko finantza-ereduaren erronkak eta gabeziak, eta funts horrek ekar ditzakeen aukerak nabarmentzen zituen.

Txosten horren arabera, Euskal Herriko ekosistema finantzarioa gehiegizko bankarizazioaren mende dago, eta alternatiba sendoagoak behar dira epe luzeko finantzaketa bermatzeko, bereziki industriaren berrikuntzarako eta enpresa txiki eta ertainen garapenerako.

Gainera, hurrengo gabeziak identifikatzen ziren:

- Finantzazio-bide ez-bankarioen eskaintza mugatua, kapital-merkatuetarako sarbide eskasa eta merkatu pribatuaren garapen mugatua.
- Enpresa txiki eta ertainen banku-menpekotasuna, arrisku-kapitaleko funtsen, mailegu zuzenen eta bestelako finantza-erakundeen erabilera mugatuta egonik.
- Tokiko enpresa-sarearen finantza-behar espezifikoak, industriaren eraldaketarako eta digitalizaziorako beharrezko tresnak garatu gabe daudela.

Horren aurrean, beste herrialde eta eskualde batzuetan antzeko esperientziak izan dira, emaitza positiboekin. Horien artean aipagarriak dira:

- Quebeceko Inbertsio Funts Estrategikoa
- Norvegiako Funts Soberanoa
- Singapurreko Temasek Funtsa

EAEko ekosistema finantzarioa aztertuta, Euskal Funts Soberano bat eratzeko beharra dagoela deritzogu, epe luzerako inbertsioak eta industria-berrikuntza bultzatzeko. Aliantza finantzarioak funts honen ernamuin gisa ulertzen dugu, eta zentzu horretan ezinbestekoa deritzogu honako kontuak modu urgentean argitzea:

- Inbertsioaren helburuak, zein sektore ekonomiko lirartekeen lehentasunezkoak.
- Funtsaren gobernantza eredua. Nola artikulatuko lirartekeen tresna publiko eta pribatu finantzarioa desberdinak.
- Euskal Finantza Institutuaren (IVF) papera funts honetan.
- Inbertsioaren baldintzazkotasunaren oinarritzko irizpideak.

III. PROSPEKTIBA ETA ETORKIZUNENKO ANALISIA EGITEKO ORGANOA SORTZEA

Mundu mailako testuingurua geroz eta azkarrago aldatzen ari da, eta horrek erronka berriak sortzen ditu Euskal Herriarentzat. Eraldaketa teknologiko bizkorrak, klima-krisia, biztanleriaren zahartzea eta geopolitikaren aldaketak direla eta, beharrezkoa da gobernantza-eredu sendo eta aurreratu bat izatea, etorkizuneko erronkei aurre hartzeko gaitasuna izango duena.

Horretarako, hainbat herrialdeetako parlamentuek prospektiba eta analisi estrategikorako organoak sortu dituzte, erabaki publikoak hartzeko tresna sendoak eskaintzeko eta etorkizuneko agertokiaren azterketa burutzeko.

Prospektiba-unitate hauek gobernantza aurrerakoia sustatzen dute, legebiltzarkideei etorkizuneko agertokiei buruzko ezagutzak emanez, eta hartara, politika publikoak etorkizuneko erronkei egokitzen laguntzen dute. Legebiltzarrak ere pauso sendo bat eman behar du etorkizuneko politika publikoak planifikatzeko eta erabaki informatuagoak hartzeko. Etorkizuna aurreikusteko organo bat izatea funtsezkoa da euskal ekonomiaren, industria politikaren, enpleguaren, klima-aldaketaren, trantsizio digitalaren, hezkuntzaren, berrikuntzaren eta ongizate sozialaren inguruko erronkak behar bezala ulertzeko, besteak beste.

- Organo honek autonomia teknikoa izan dezala eta unibertsitateekin, ikerketazentroekin eta nazioarteko adituekin lankidetzan jardun dezala, azterketen kalitate eta fidagarritasuna bermatzeko.
- Organo honen egonkortasuna bermatzea, epe luzerako ikerketak garatu ahal izateko eta politika publikoen eraginari buruzko informazio zehatza eskaintzeko.
- Azterlanak talde parlamentario guztien eta gizarte osoaren eskura jartzea, gardentasuna eta eztabaida demokratikoa sustatzeko.
- Analisi-prospektiborako metodologia aurreratuak integratzea, hala nola agertokiaren modelizazioa, joeren azterketa eta aukera estrategikoen identifikazioa, politikek epe luzerako ikuspegia izan dezaten.

- Legebiltzarreko kideentzat prestakuntza eta dibulgazio estrategiak sustatzea, prospektibaren inguruko ezagutza zabaltzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartzeko.

IV. BURUJABETZA ENERGETIKOAREN ALDEKO HERRI-ITUNA

Ziurgabetasun garai honetan trantsizio energetikoa prozesu kritikoa da gure ehun industrialarentzat zein lehen sektorearentzat. Burujabetza energetikoan aurrera urrats bat egitea ezinbestekoa zaigu. Bi auzi dira, bereziki, lehen mailako arreta eskatzen dutenak: garraio sare elektrikoaren gaineko erabakimena bere eraberritzea diseinatu eta beharrezko inbertsioa aurreratu ahal izateko, eta energia berriztagarriak hedatzeko oinarritzko adostasun sozialen lanketa.

Lehenari dagokionez, beharrezkoa da Madrilen elkarlanean aritzea, orain arte ez bezala. Legebiltzarrean ordezkari batzuen alderdi guztien artean adostasun bat erdietsi behar dugu gure garraio sare elektrikoaren gaineko erabakimena eskuratzeko izan daitezkeen aukeren inguruan, eta Madrilen hartu beharreko ekimen politikoaren inguruan.

Bigarrenari dagokionez, 1/2024 legearen 11. artikulua Trantsizio Energetikoa eta Klima Aldaketari buruzko Euskal Itun Soziala definitzen du. Artikulu honek bi puntu ditu:

1. Eusko Jaurlaritzak trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko gizarte-itun bat garatzea sustatuko du, lege honen helburuak eta bertan aurreikusitako plangintza-tresnak garatzen laguntzeko.
2. Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Euskal Itun Soziala onartzeko, Eusko Jaurlaritzak parte hartze prozesu bat diseinatu eta bultzatuko du, autonomia- zein eskualde mailako deliberazio-prozesuen bidez. Prozesu horietan hainbat eragile politiko, sozial eta ekonomikok hartuko du parte.

Itun soziala garatzeko prozesuak ondorengo eskema jarraitu behar duela deritzogu:

- Sortu dadila itun soziala garatzeko mahai bat herri ordezkariak zabal batekin: alderdi politikoak, sindikatuak, nekazal sindikatuak, talde ekologistak. Mahai honen dinamizazioa, eztabaida markoa eta aholkularitza BC3k gidatu dezala, klima aldaketaren azterketarako dugun organo zientifiko nagusia den heinean.

- Herritarren batzarra sortu dadila itun sozialaren garapenari jarraipena egiteko, eztabaida marko independente bezala. Itun soziala garatzeko mahaiak hala erabakitzen duen eskualdeetan ere sortu ditzala honelako batzarrak. 3/2022 legeak bere 19. artikuluan jasotzen dituen terminoetan osatuko dira batzar hauek. Batzarraren osaerak berdintasun-printzipioa errespetatu beharko du, eta hori zozketa geruzatu baten bidez bermatuko da, funtsezko aldagai soziodemografikoei dagokienez, hala nola, sexua, errenta edo lanbide-kualifikazioa.
- Bi prozesu paralelo hauek Euskal Itun Soziala elikatu dezatela. Itun honek Trantsizio Energetikoa eta Klima Aldaketaren Legean jasotzen diren helburuak lortzeko gomendioak jaso behar ditu, arreta berezia jarritz energia berriztagarrien hedapenerako nahiz energia kontsumoa murrizteko irizpide, neurri eta politiketan.
- Akordio honek Lurralde Plan Partzialen berrikuspena ekarriko du, lurralde antolaketa osoa berrikusiz: elikadura, industria, mugikortasuna, klima aldaketarako egokitzapena eta energia azpiegituren kokapenak ordenatuko dituena, eskualde eskalan. Prozesu honek komunitate lokalen parte-hartzea artikulatuko du.

V. ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO INBERTSIO FUNTSA

Etxebizitza larrialdia lehen mailako arazoa bihurtu da, ez soilik termino sozialetan baita ekonomikoetan ere. Batetik, eragin zuzena dauka langileen bizi baldintzetan eta, ondorioz, lanarekiko jarreran. Bigarren, lan-merkatuak atzerriko jatorriko langile asko jasoko baditu, etxebizitza eskuragarria ez izateak gure ekonomiaren erresilientzian eragin zuzena izango du. Azkenik, posible da, ziurgabetasun ekonomikoaren ondorioz, inbertsoreek aterpe-aktiboak bilatzea (gertatzen ari da dagoeneko errearekin) eta horietako bat etxebizitza merkatua izatea etorkizun hurbilean, prezioen goranzko joera are gehiago hauspotuz.

Ziklo inflazionario berriak etor badaitezke, gure herri erakundeek gaitasun gutxi izango dute elikagaien, energiaren edota oinarrizko ondasunen prezioetan eragiteko. Aldiz, etxebizitzaren prezioan bai eragin dezakegu politika publikoen bidez, ez egun batetik bestera baina bai epe ertainean.

Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mixtoan EA Eren zorpetze marjina handitzea adostu da. Orain zorraren erabilera estrategiko bat egin behar da. Gaude herri-erakundeen zorpetze gaitasuna bi norabidetan baliatu behar dela momentu honetan: industriaren transformazioa eta errotzea eta etxebizitza eskubidea bermatzea.

Izan ere, kontratu soziala etxebizitzaren egoerarekin ari da hausten modu nabarmenean. Ondorioz, inbertsio publiko handi bat behar da babestutako alokairura bideratutako etxebizitza publikoen sustapenerako. EA En badugu gaitasun politikoa, legala zein finantzarioa etxebizitza larrialdiari egiturazko erantzun bat emateko. Eusko Jaurlaritzak Babes Ofizialeko Etxebizitzen lur erreserben portzentajeak murrizteko iragarri duen lurzoru legearen aldaketa kontraerreforma larria dela deritzogu. Hori ez da bidea, kontrakoa baizik. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren gaitasun finantzarioen zati esanguratsu bat babestutako etxebizitza publikoen promoziora bideratu beharko litzateke, eta aliantza finantzario bat osatu, sektore publikoak etxebizitza berrien eraikuntza nahikotasunez bermatu dezan.